

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3108

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginak 30. artikuluan xedatzen duenaren arabera (irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onetsita), prezio publikotzat joko dira zuzenbide publikopeko jardueren edo zerbitzuen trukean ematen diren diru-sariak, baldin eta tasa ez badira lege beraren 4 artikulua arabera.

Testu bategin beraren 31. artikulua ezartzen du prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko direla, hauek biek batera proposatuta: ogasunaren arloko eskumena duen sailak eta kasuan kasuko sailak edo zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen organoaren edo enterearen gaineko sailak.

Hori guztia betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretua onetsi zen. Dekretu horren eranskineko 2. puntuan dago jasota zein zerbitzu eta jarduera komunak ordainetan eska dezaketen organismo autonomoek prezio publikoa, eta 17. puntuan dago zehaztuta zein zerbitzuren ordainetan eska dezakeen, berariaz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.

Era berean, arestian aipatu den testu bategineko 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio, agindu bidez, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezarri edo aldatzea, eta, aurretiaz, txosten lotesle bat egin beharko du ogasunaren arloko eskumena duen sailak.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginak emandako ahalmenak erabiliz, eta Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunak aldeko txostena eman ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da IVAP–Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzea.

2. artikulua.– Prestakuntza-jarduerak.

2.1.– Foru- eta toki-administrazioetako langileen prestakuntza-beharren diagnostikoa edo azterketa egiteko diru-zenbatekoa hau izango da:

2.1.a.– 100 langile baino gutxiagoko erakundea: 1.500 euro.

2.1.b.– 100 eta 300 langile arteko erakundea: 2.500 euro.

2.1.c.– 301 eta 999 langile arteko erakundea: 4.000 euro.

2.1.d.– 999 langile baino gehiagoko erakundea: 6.500 euro.

2.2.– IVAPek antolatzen dituen prestakuntza-jardueretarako matrikularen diru-zenbateko arrunta zehazteko orduan, kontuan hartuko da zenbat ordu irauten duten. Hona hemen:

Ikastaroaren iraupena	Matrikularen diru-zenbatekoa (eurotan)		
	Aurrez aurreko prestakuntza	Lineako prestakuntza	Lineako + aurrez aurreko prestakuntza
5 ordura bitartekoa	40,95	32,55	37,80
6 eta 10 ordu bitartekoa	119,70	88,20	106,05
11 eta 15 ordu bitartekoa	152,25	112,35	134,40
16 eta 20 ordu bitartekoa	195,30	143,85	172,20
21 eta 30 ordu bitartekoa	263,55	195,30	234,15
31 eta 40 ordu bitartekoa	345,45	206,85	248,85
41 eta 50 ordu bitartekoa	425,25	254,10	305,55
51 eta 70 ordu bitartekoa	508,20	304,50	364,35
71 eta 100 ordu bitartekoa	738,15	444,15	532,35
101 eta 150 ordu bitartekoa	1230,60	738,15	885,15
151 eta 250 ordu bitartekoa	1723,05	1033,20	1239,00
251 eta 350 ordu bitartekoa	2462,25	1476,30	1772,40
351 eta 400 ordu bitartekoa	2919,00	1845,90	2213,40
401 ordu baino gehiagokoa	4100,25	2461,20	2972,55

Hainbat prestakuntza-mota eskaintzen duten prestakuntza-planen kasuan (lanposturako prestakuntza, karrera profesionala egiteko prestakuntza, barne-igoerarako prestakuntza eta antzekoak), IVAPek aukera eskainiko du prestakuntza-jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen prestakuntza-orduak metatzeko, matrikula bakarra egin dadin pertsona, prestakuntza-mota eta prestakuntza-plan bakoitzeko.

2.3.– Jarduera espezifikoetako matrikularen diru-zenbatekoa.

2.3.a.– Jardunaldi espezializatueta matrikularen zenbatekoa 207,00 euro-koa izango da.

2.3.b.– Prezio publikoaren zenbatekoa % 25eraino garestitu ahalko da baldin eta, jardueraren gaia, erabiliko den hizkuntza edo beste ezaugarri berezi batzuk direla-eta, prestakuntza-jardueraren kostua nabarmen igotzen duten irakasle edo baliabide tekniko bereziak behar badira.

2.3.c.– Zuzendaritza-trebetasunak garatzeko espezializazio-prestakuntzako jardueren matrikulari dagokionez, 21,00 euro ordainduko da aurrez aurreko prestakuntza-ordu bakoitzeko, eta 12,00 euro lineako prestakuntza-ordu bakoitzeko.

2.3.d.– IVAPek Administrazio publiko batekin edo batzuekin batera antolatutako ikastaroetan, erakunde horietako langileentzat badira, honako hau egin dezake IVAPek:

2.3.d.1.– Hobaria aplikatzea prestakuntza-jarduerari dagozkion matrikulen prezioan, prestakuntza-jarduera horretan erakunde bakoitzak bere gain hartutako gastuen ehunekoari dagokion zenbatekoan.

2.3.d.2.– Bertaratuen kopuru handiarengatik matrikulako diru-sarreraren guztizko zenbatekoa ikastaroaren kostua baino handiagoa denean, banakako matrikula bakoitza ordaindu ordez, prestakuntza-jardueraren kostu osoa ordaintzea erakunde bakoitzari dagokion zenbatekoan, erakunde horrek bere gain hartutako gastuen ehunekoaren arabera.

2.4.– Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatzen duen Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaro osoaren matrikulari dagokion prezio publikoa ordaintzetik salbuestea. Prezio publiko hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira, ikastaroa osorik egiteko onartutako pertsona fisikoak, honako baldintza hauek betetzen direnean:

2.4.a.– Auzotasun administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, dagokion ikastaroaren deialdiaren aurreko urteko urtarrilaren 1etik gutxienez.

2.4.b.– Diru-sarrerak eta ikastarora sartzeko alegatu duten unibertsitate-tituluari dagozkion kalifikazioak. Honako bi baldintzetako bat betetzea:

2.4.b.1.– Pertsona bakarreko bizikidetzatza- edo familia-unitate izatea, eta unitate horren diru-sarrerak ez gainditzea lanbide arteko gutxieneko soldataren % 158, edo kide anitzeko bizikidetzatza- edo familia-unitate batekoa izatea, eta unitate horren diru-sarrerak, guztira, ez gainditzea lanbide arteko gutxieneko soldataren % 376, ez eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145 ere, kide bakoitzeko.

2.4.b.2.– Ikasketa-espeditentean, ingeniariaren eta arkitekturaren adarretako titulazioetan, gutxienez, 7 puntuko batez besteko nota lortu izana, eta gainerako titulazioetan, berriz, 8 puntuko; eta pertsona bakarreko bizikidetzatza- edo familia-unitate bat osatzea, diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren % 180 gainditzeko ez duena, edo pertsona anitzeko bizikidetzatza- edo familia-unitate bateko kide izatea, diru-sarrerak, guztira, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 450 gainditzeko ez duena, azken kasu honetan, diru-sarrera proiektuak lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145 gainditzeko ez badute.

Salbuespena eskatu behar da matrikula egiteko ezartzen den epearen barruan. Epe horretan ekarri beharko da, halaber, salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa. Ekarri beharreko dokumentazioa ikastaro bakoitzaren deialdian zehaztuko da. Eskaera ezetsiz gero, matrikula ordaindu beharko da horretarako ezartzen den epean.

Ikastaroa behar bezala ez betetzeak salbuespena automatikoki deuseztatzea ekarriko du, eta dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da, salbu eta erditzea, adopzioa, harrera, aitasuna, gaixotasun larria edo behar bezala justifikatutako antzeko egoerak direnean.

2.5.– Orobat, matrikulari dagokion prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, administrazio publikoetan diharduten langileen intereseko informazioa zabaltzea helburu duten jardunaldietan parte hartzea, bai eta IVAPek estrategikotzat jotzen dituen prestakuntza-ekintzetan parte hartzea ere.

3. artikulua.– Itzulpen-zerbitzuak.

Hona hemen itzulpen-zerbitzuen zenbatekoak:

3.1.– Administrazio-hizkera garatzeko interesgarriak diren itzulpenak eta itzulpenen berrikusketa. Halakotzat hartuko dira Legebiltzarreko agerpen, txosten eta erantzunak, lege-proiektuekin lotutako txostenak, dekretu-proiektuak, Jaurlaritzaren plan eta programak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (EABJ) txosten eta oroitzak, lege-testuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzeko diren testuak.

3.1.a.– Gaztelaniatik euskarara: 0,0358 euro hitzeko, BEZa barne.

3.1.b.– Euskaratik gaztelaniara: 0,0179 euro hitzeko, BEZa barne.

3.2.– Testu errazak edo estandarrak itzultzea eta horien itzulpenak berrikustea, hala nola ofizioak, aktak eta gutunak.

3.2.a.– Gaztelaniatik euskarara: 0,0813 euro hitzeko, BEZa barne.

3.2.b.– Euskaratik gaztelaniara: 0,0406 euro hitzeko, BEZa barne.

3.3.– Aurreko ataletan ezarritako testu-moten barruan sailkatu ezin diren itzulpenak eta itzulpenen berrikuspenak.

3.3.a.– Gaztelaniatik euskarara: 0,0520 euro hitzeko, BEZa barne.

3.3.b.– Euskaratik gaztelaniara: 0,0260 euro hitzeko, BEZa barne.

3.4.– Mila hitzetik gorako testuen itzulpenei eta itzulpenen berrikuspenei aplikatu beharreko prezio publikoa, itzulpen-memorietan itzulita badaude, aurreko paragrafoak aplikatzearen ondoriozkoa izango da, testu motaren arabera, honako doikuntza hauekin:

3.4.a.– % 95 eta % 100 arteko kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 50.

3.4.b.– % 85 edo gehiagoko eta % 95 baino gutxiagoko kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 80

3.4.c.– % 85 arteko kointzidentzia duten itzulpen-unitateak: hitzeko prezioaren % 100.

3.5.– Itzulpenen baliokidetasun juridikoa ziurtatzeko zerbitzua: 0,0216 euro hitzeko, BEZa barne. Testuak zuzenketarik behar badu, testua berrikusteagatik ordaindu beharreko prezioa gehituko zaio prezio horri, betiere kasuan kasuko testu-motari dagokion neurrian.

3.6.– Presagatiko gainordaina. Premiazko lanak agintzen direnean, % 40 garestituko da prezio publikoaren zenbatekoa.

3.7.– Nolanahi ere, itzulpenengatik eta itzulpenen berrikuspenarengatik, edozein mota dela ere, ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa 25,00 euro-koa izango da, BEZa barne. Salbuetsita daude EHAAn argitaratzeko diren testuak.

3.8.– Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzak-hitzarmenik ez badago Estatuko legeria euskarara itzultzeko, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratze aldera, prezio publikoaren % 60ko hoberia aplikatuko zaie Estatuko Aldizkari Ofizialean ezartzeko diren Estatuko legeriaren itzulpenei.

3.9.– Artikulu honetan ezarritako prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita egongo da Euskal Autonomia Erkidegorako lege-aurreproiektuak itzuli, berrikusi edo korredakzioan idatzi behar direnean, testuak EAerako araugile izanik, erreferentziazat hartzekoak baitira.

4. artikulua.– Interpretazio-zerbitzuak.

Hona hemen IVAPek eskaintzen dituen interpretazio-zerbitzuen zenbatekoak:

4.1.– Interpretazio-lanak biltzar, jardunaldi, sinposio, topaketa eta antzekoetan.

4.1.a.– Administrazioak antolatu dituen eta programa barruan euskarazko parte-hartzeren bat aurreikusita duten biltzar eleaniztunak:

4.1.a.1.– Egun osoa (7 ordu): 270,53 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.1.a.2.– Egun erdia (4 ordu): 153,33 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.1.a.3.– Beste ordu bakoitzeko (ordubete edo zatikia): 62,43 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne

4.1.b.– Administrazioak antolatu dituen eta programa barruan euskarazko parte-hartzerik aurreikusita ez duten biltzarrak:

4.1.b.1.– Egun osoa (7 ordu): 538,87 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.1.b.2.– Egun erdia (4 horas): 308,87 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.1.b.3.– Beste ordu bakoitzeko (ordubete edo zatikia): 122,67 euro interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.2.– Interpretazio-lanak bilera, negoziazio-mahai, ahozko epaiketa eta antzekoetan:

4.2.a.– Euskal Autonomia Erkidegoan: 62,43 euro orduko interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.2.b.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 122,67 euro orduko interprete bakoitzeko, BEZa barne.

4.3.– Hona hemen Interpretazio-lanen gutxienerako prezioa:

4.3.a.– Euskal Autonomia Erkidegoan emandako zerbitzuak: 122,67 euro, BEZa barne.

4.3.b.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo emandako zerbitzuak: 245,34 euro, BEZa barne.

5. artikulua.– Hautaketa eta Hizkuntza Ebaluaketako Zerbitzuak.

Hona hemen IVAPek eskaintzen dituen hautaketa eta hizkuntza-ebaluazioko zerbitzuen zenbatekoak:

5.1.– Hautaketako teknikarien laguntza: 49,00 euro lanorduko, BEZa barne.

5.2.– Erantzun irekiko azterketa-proposamenak idaztea, azterketa praktikoak idaztea, zuzentzea eta ebaluazio-txostenak egitea:

5.2.a.– Errazak: 37,00 euro lanorduko, BEZa barne.

5.2.b.– Tartekoak: 48,00 euro lanorduko, BEZa barne.

5.2.c.– Zailak: 61,00 euro lanorduko, BEZa barne.

5.3.– Erantzun-aukera anitzeko galderen proposamenak prestatzea: 19,00 euro galderako, BEZa barne.

5.4.– Jarduera materialak egitea:

5.4.a.– Hautaketa-prozesuen kudeaketarako aplikazio informatikoaren erabilera lagatzea: 2.000,00 euro, BEZa barne.

5.4.b.– Ariketa objektiboak makina bidez zuzentzea: 0,80 euro azterketako, BEZa barne.

5.4.c.– Azterketen konposizioa eta fotokopiatzea: 0,12 euro orriko, BEZa barne.

5.5.– Irakurgailu optikoz zuzentzeko teknikari informatikarien laguntza: 49,00 euro lanorduko, BEZa barne.

5.6.– Ohiz kanpo, lana bereziki zaila bada eta/edo premiaz egin beharrekoa bada, artikulua hone-tako prezio guztiak % 50eraino garestitu ahalko dira.

5.7.– Artikulu honetan ezarritako prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita dago Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrerako eta administrazio-erakunde autonomoetarako funtziona-rioak eta lan-kontratupeko langileak aukeratzeko zerbitzua.

6. artikulua.– IVAPeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroko funtsen eta dokumentazioaren fotokopiak:

6.a.– 0,08 euro A4 orrialde bakoitzeko, BEZa barne.

6.b.– 0,16 euro A3 orrialde bakoitzeko, BEZa barne.

7. artikulua.– Argitalpenen salmenta.

7.1.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria.

7.1.a.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkariaren urteko harpidetzaren zenbatekoa, paper euskarrian, 62,40 euro-koa izango da, BEZa barne.

7.1.b.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria aleka saltzeko, paper euskarrian, 26,00 euro-ko pre-zioa zehaztu da, BEZa barne.

7.1.c.– Herri Ardularitzazko Euskal Aldizkaria doan eskura daiteke formatu digitalean, webgunean.

7.2.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria.

7.2.a.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren urteko harpi-detzaren zenbatekoa, paper euskarrian, 72,00 euro-koa izango da, BEZa barne

7.2.b.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria aleka saltzeko, paper euskarrian, 40,00 euro-ko prezioa zehaztu da, BEZa barne.

7.2.c.– Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria doan eskura dai-teke formatu digitalean, webgunean.

7.3.– Beste argitalpen batzuk.

IVAPek argitaratzen dituen argitalpen berrien prezio publikoak, paperezko euskarrian edo elek-tronikoan, Agindu honen Eranskinean zehazten dira argitalpen bakoitzerako.

7.4.– Hobariak.

Argitalpenen salmentagatiko prezio publikoetan, metagarriak ez diren honako hobari hauek aplikatuko dira:

7.4.a.– Ezarritako prezioaren ehuneko hamarreko hobaria aplikatuko zaie argitalpenak azoke-tan, Eusko Jaurlaritzaren standetan, eskuratzen dituztenei.

7.4.b.– Ehuneko hogeiko hobaria aplikatuko zaie argitalpenak Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiko liburu-dendan erostean Gazte Txartela aurkezten dutenei.

7.4.c.– Ezarritako prezioaren ehuneko berrogeita hamar eta ehuneko hogeita hamar aplika-tuko zaie, hurrenez hurren, banatzaileei eta liburu-saltzaileei.

8. artikulua.– Ordaintzeko epea eta modua.

8.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen zuzenbide publikoko diru-sarreraren erregistro eta kobrantza automatikoaren inguruan unean-unean indarrean den araudiaren arabera egingo dira ordainketak, Administrazioaren Ordainketa eta Kobrantzen Sistema Integralaren bitartez.

8.2.– Prezio publikoen guztizko zenbatekoa aurretiaz ordaintzeko eskatu ahal izango da, eskaera egiteko unean, ondasunak eman aurretik edo eskatzea justifikatzen duten zerbitzuak ematen hasten direnean ordaintzeko, hain zuzen ere.

8.3.– Administrazioak ordainketa-ziurtagiri bat eman beharko du. Bertan, gutxienez, datu hauek adierazi beharko ditu: zein organok egin duen; zordunaren izen-abizenak edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta guzti; zordunaren helbidea; kontzeptua; prezio publikoaren zenbatekoa, zein hobari aplikatu den dagokionean; zein egunetan kobratu den eta Balio Erantsia-
ren gaineko Zerga.

8.4.– Prezio publikoen zenbateko osoa edo horren zati bat aurretiaz ordaintzeko eskatzen ez denean, jakinarazpenaren eragin berberak izango dituzte prezioen kitapenetan emango diren ordainketa-ziurtagiriek, baina, horretarako, beste datu hauek ere adierazi beharko dituzte: zein inpugnazio egin daitekeen; zein organotan, eta zein epetan eta; zorra non, zein epetan eta nola ordaindu behar den.

8.5.– IVAPeko Liburutegi eta Dokumentazio Zentroko funtsen eta dokumentazioaren fotokopiak eskudirutan ordainduko dira, fotokopiagailuan bertan ezarritako mekanismoaren bidez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu honek hau indargabetzen du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duen Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko abenduaren 11ko Agindua.

Hala eta guztiz ere, indargabetutako aginduaren 3. artikulua 2. apartatuan ezarri eta IVAPek antolatutako prestakuntza-jarduerei dagozkien diru-zenbatekoak indarrean egongo dira agindu honen 2. artikulua 2.2 apartatuan ezarritakoak indarrean jarri arte, azken xedapenean ezartzen denaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Nolanahi ere, agindu honen 2. artikulua 2.2 apartatuan ezarritako matrikulen diru-zenbatekoak, IVAPek antolatutako prestakuntza-jarduerei dagozkienak, 2023ko urtarrilaren 4an sartuko dira indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 20a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

2022ko uztailaren 8a, ostirala

ERANSKINA

ARGITARATUTAKO ZENBAIT ARGITALPENEN PREZIO PUBLIKOA

Argitalpena	Prezioa (eurotan), BEZa barne
Colección «Derecho Constitucional»:	
Ixusko Ordeñana Gezuraga: Biktimaren estatutu juridikoa Espainiako zigor zuzenbide jurisdikzionalen: lege data eta lege ferenda azterketa, gaiaren inguruko Europako arauditik abiatuz	24,96 (paperean) 7,26 (formatu digitalean, sarean)
Marthelena Guerrero Colmenares: La libertad de antena. Perspectiva constitucional del derecho a crear medios televisivos	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Eneko Compains Silva: Botere konstituziogilea latinoamerikar konstituzionalismo berrian. Venezuela, Bolivia eta Ekuadorreko azken prozesu konstituziogileen analisi konparatu bat	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: José Manuel Almuñá Cid, Isaac Merino Jara y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Derechos fundamentales y ordenamiento tributario	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: La aplicación del Reglamento (UE) de Protección de Datos en la Administración Pública: especial referencia a los entes locales	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Introducción al nuevo marco normativo de la protección de datos personales en su aplicación al sector público	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Iñaki Lasagabaster Herrarte: Parlamento, Tribunal Constitucional, separación de poderes (con obligada referencia a Cataluña)	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Maribel González Pascual: Las salvaguardas de la autonomía política ante las crisis. (De la crisis del euro a la crisis del coronavirus)	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Derecho Administrativo»:	
René Javier Santamaría Arinas: Curso básico sobre régimen jurídico de las administraciones públicas y procedimiento administrativo común. 3. ^a edición	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
René Javier Santamaría Arinas: Glosario comparado sobre la reforma del régimen jurídico del sector público y del procedimiento administrativo común	26,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
José Ignacio Cubero Marcos: Las notificaciones administrativas	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
René Javier Santamaría Arinas: Sectore publikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen araubide juridikoaren erreformari buruzko Glosario Konparatua	26,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Arantza González López: Manual práctico del recurso de casación contencioso-administrativo	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
René Javier Santamaría Arinas: Glosario comparado sobre la reforma del régimen jurídico del sector público y del procedimiento administrativo común 2019	26,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Maite Uriarte Ricote e Ixusko Ordeñana Gezuraga: Eskola bitartekaritza unibertsitatez kanpoko hezkuntza sisteman: erakundeen babesetik, bultzada arauemailerara	18,72 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Maite Uriarte Ricote e Ixusko Ordeñana Gezuraga: La mediación escolar en el sistema educativo vasco no universitario: del respaldo institucional al impulso normativo	18,72 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Director: Isaac Martín Delgado): El procedimiento administrativo y el régimen jurídico de la administración pública desde la perspectiva de la innovación tecnológica	34,50 (paperean)
Javier Serrano Chamizo: La Ley de Contratos del Sector Público en la doctrina del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Derecho Autonómico»:	
Iñaki Lasagabaster Herrarte: Derecho público en Euskal Herria	23,00 (paperean)

Argitalpena	Prezioa (eurotan), BEZa barne
Iñaki Lasagabaster Herrarte: Zuzenbide publikoa Euskal Herrian	23,00 (paperean)
Mikel Tomás Fidalgo Astigarraga: Euskal zuzenbide zibiliarri dagokion zuzenbide prozesala: <i>lege data</i> eta <i>lege ferenda</i> azterketa	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Begoña Pérez De Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdiá y Luis María Rouse Arroita: La erosión silenciosa	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Begoña Pérez De Eulate González, José Andrés Blasco Altuna, Luken Larburu Aizpurua, Javier Moreno García, Zelai Nikolas Ezkurdiá y Luis María Rouse Arroita: Higadura isila	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Administración Local»:	
Servicio de formación del IVAP: Barne fiskalizazioa Toki Administrazioan (Arau estandarrak eta txantiloak) / Fiscalización interna en la Administración Local (Estándares normativos y plantillas)	14,56 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Cómo gobernar y dirigir un ayuntamiento. Política y Dirección Pública en las instituciones locales	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Vademécum de política municipal. Cómo gobernar un ayuntamiento	Doan (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Udal-politikaren vademecuma. Nola gobernatu udala	Doan (formatu digitalean, sarean)
Ramón Lluís Galindo Caldés: La organización territorial inframunicipal en el País Vasco	15,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Martín Razquin Lizarraga: El derecho de acceso a la información pública. Teoría y práctica, en especial, para las entidades locales	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Udal Gida (2015) / Guía Local (2015)	52,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Udal Gida (2016) / Guía Local (2016)	52,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: 2016ko Udal Gida eguneratzeko separata / Separata de actualización de la Guía Local 2016	5,20 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: José Ignacio Cubero Marcos e Iñaki Lasagabaster Herrarte): Espacio público y ordenanzas locales: estudio sobre su régimen jurídico	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Udal Gida (2019) / Guía Local (2019)	52,00 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Colección «Ordenación del Territorio y Urbanismo»:	
Javier Moreno García: Los distintos estatutos jurídicos del subsuelo	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Coordinadora: M ^a Pilar Ochoa Gómez): Manual de garantía y protección de la ordenación urbanística. (Disciplina urbanística)	41,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
José Ignacio Tejerina González: Código urbanístico. Euskadi, 2017	31,20 (paperean) 12,10 (formatu digitalean, sarean)
Iñaki Serrano Lasa: La configuración jurídica de la ciudad compacta a través de las dotaciones urbanísticas	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Medio Ambiente»:	
René Javier Santamaría Arinas: Curso básico de derecho ambiental general	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
M. ^a Del Carmen Bolaño Piñeiro: El nuevo régimen jurídico de los suelos contaminados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, adaptado a la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Coordinador: Iñaki Agirreazkuenaga Zigorruga): Política de residuos. Análisis jurídico desde Euskadi	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
René Javier Santamaría Arinas: Curso básico de derecho ambiental general. 2. ^a edición revisada y puesta al día	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Unión Europea y Relaciones Internacionales»:	

2022ko uztailaren 8a, ostirala

Argitalpena	Prezioa (eurotan), BEZa barne
AA.VV. (Directores: Paz Andrés Sáenz de Santamaría y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): El parlamento europeo: ¿esta vez es diferente?	26,00 (paperean) 9,68 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, Alejandro Saiz Arnaiz y Mariela Morales Antoniazzi): La garantía jurisdiccional de los derechos humanos. Un estudio comparado de los sistemas regionales de tutela: europeo, interamericano y africano	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Isaac Merino Jara y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Tributación de las empresas vascas	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena y Henri Labayle): La tutela judicial de los Derechos Fundamentales en el espacio de libertad, seguridad y justicia de la Unión Europea	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Isaac Merino Jara y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Fiscalidad internacional desde la perspectiva del País Vasco	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Iñaki Lasagabaster Herrarte: La cooperación transfronteriza en Europa. Una mirada desde Euskal Herria	15,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena y Santiago Ripol Carulla: El Tribunal Constitucional en la encrucijada europea de los derechos fundamentales. Un análisis a partir del asunto «Melloni» y sus implicaciones	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Ricardo Alonso García y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): La aplicación judicial de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, Alejandro Saiz Arnaiz y Mariela Morales Antoniazzi): La jurisdicción constitucional en la tutela de los derechos fundamentales de la UE. Especial referencia al espacio de libertad, seguridad y justicia	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Henry Labayle y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Les crises de l'espace de liberté, sécurité, justice / Las crisis del espacio de libertad, seguridad y justicia	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Ricardo Alonso García y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): La jurisprudencia social europea: <i>De Diego Porras</i> y otras cuestiones de actualidad	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena y Henri Labayle): El espacio de libertad, seguridad y justicia y el derecho del Convenio Europeo de Derechos Humanos	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Ricardo Alonso García y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): El juez nacional en su condición de juez europeo	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Alejandro Saiz Arnaiz y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): El futuro jurisdiccional de Europa	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Ricardo Alonso García y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): La incidencia del Derecho de la Unión Europea en la jurisdicción contencioso-administrativa	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Coordinadores: Armin von Bogdandy, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena, Daniel Sarmiento Rodríguez-Escudero y Mariela Morales Antoniazzi): El futuro de la Unión Europea. Retos y desafíos	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena y Alejandro Saiz Arnaiz): ¿Está en peligro el Estado de Derecho en la Unión Europea?	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Lenguaje»:	
Iñigo Urrutia Libarona y Xabier Irujo Ametzaga: Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2013)	20,80 (paperean)
IVAP: Documentos de la Administración. La solicitud	10,40 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Administrazioko idazkiak. Eskabidea	10,40 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)

2022ko uztailaren 8a, ostirala

Argitalpena	Prezioa (eurotan), BEZa barne
IVAP-IKA: ELEBI programaren eskuliburua. Eusko Jaurlaritzako esperientzia	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Andrés M ^a Urrutia Badiola: Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas <i>inter privados</i> . Análisis desde la perspectiva del euskera en el derecho privado español, en el francés y en el de la Unión Europea	41,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Julen Cabezas Urkiaga; Susana Jauregi Arregi; Aintzane Iturria Egaña; Roberto González De Viñaspre Gonzalo; Aintzane Etxebarria Urkiola; Iratxe Etxebarria Arizmendi; Maiteder Erkiaga Laka; Garbiñe Doval García y Gotzon Castro Legarza: Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketa-ereduak	34,32 (paperean) 12,10 (formatu digitalean, sarean)
César Gallastegi Aranzabal: Euskera y régimen foral vasco. Lengua, comunicación, poder y Derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876)	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
IVAP: 20 consejos para mejorar la calidad de los textos jurídicos en castellano	26,00 (paperean) 10,00 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Territorios Históricos»:	
Roberto González De Zárate Lorente: El ordenamiento político-administrativo de los Territorios forales de Euskadi	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Ciencia de la Administración»:	
Antonio Díaz Méndez y Oscar Cortés Abad: Gestión inteligente de las redes sociales en la Administración pública	24,96 (paperean) 7,26 (formatu digitalean, sarean)
Eusko Jaurlaritzaren Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa publiko aurreratuko eredua / Modelo de gestión pública avanzada del Gobierno vasco	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Comisión de Ética Pública / Etika Publikorako Batzordea: Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco (octubre 2013-diciembre 2014) / Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria (2013ko urria-2014ko abendua)	12,48 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Comisión de Ética Pública / Etika Publikorako Batzordea: Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2015 / Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria 2015	12,48 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Los frenos del poder. Separación de poderes y control de las instituciones	26,00 (paperean)
Comisión de Ética Pública / Etika Publikorako Batzordea: Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2016 / Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria 2016	12,48 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Rafael Jiménez Asensio: Cómo prevenir la corrupción. Integridad y transparencia	16,50 (paperean)
Comisión de Ética Pública / Etika Publikorako Batzordea: Memoria de la Comisión de Ética Pública del Gobierno Vasco 2017 / Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen Memoria 2017	12,48 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
Colección «Historia»:	
David Mota Zurdo: Un sueño americano. El Gobierno Vasco en el exilio y Estados Unidos (1937-1979)	24,96 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Onésimo Díaz Hernández: En la lucha por la autonomía vasca: la situación política y económico-administrativa de la Diputación de Álava (1900-1923)	20,80 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Pedro de Basaldúa: Euzkadi, la guerra antes del Estatuto. Desde la Secretaría del Gobierno de Vizcaya	26,00 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Miguel Ángel Elustondo Echeverría: RV Resistencia vasca erresistentziaren ahotsak (1960-1975)	45,00 (paperean) 12,10 (formatu digitalean, sarean)
Aritz Ipiña Bidaurrezaga: La depuración de las empleadas y empleados municipales en Bizkaia durante la guerra civil y la dictadura franquista (1936-1976)	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)

2022ko uztailaren 8a, ostirala

Argitalpena	Prezioa (eurotan), BEZa barne
Xabier Irujo Ametzaga y Alberto Irigoyen Arteche: La hora vasca de Venezuela. La administración del gobierno de Euskadi y el exilio político vasco de Caracas (1939-1979)	26,00 (formato pap) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Financiación Autonómica»:	
Javier Armentia Basterra: Introducción al sistema tributario del País Vasco	18,72 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Iñaki Alonso Arce: Derecho de la Unión Europea y Concierto Económico. Principios vertebradores de la autonomía tributaria foral en el marco de la Unión Europea	41,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Amaia Urkiola Fernández: La redistribución entre Territorios Históricos dentro del sector público vasco	41,60 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Isaac Merino Jara y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Concierto Económico y BEPS	36,40 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
AA.VV. (Directores: Isaac Merino Jara y Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena): Concierto Económico y puntos de conexión	31,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Imanol Vitores Casado: Poder, sociedad y fiscalidad en el señorío de Vizcaya durante la baja Edad Media	57,20 (paperean) 6,05 (formatu digitalean, sarean)
Colección «Varios»:	
IVAP: Jardueren oroitza 2014 / Memoria de actividad 2014	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2015 / Memoria de actividad 2015	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2016 / Memoria de actividad 2016	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2017 / Memoria de actividad 2017	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2018 / Memoria de actividad 2018	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2019 / Memoria de actividad 2019	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)
IVAP: Jardueren oroitza 2020 / Memoria de actividad 2020	10,40 (paperean); doan (formatu digitalean, sarean)